Urretxuko udala

## LGTBI HARROTASUN EGUNA: ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) Batzar Orokorrak gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuen homosexualitatea.

Begi-bistakoa da legeen aldetik aurrera egin dugula gai honi dagokionez, eta aurrerapen horiei esker, berdintasunezko ezkontza onartu zela, 2005ean, edo, orain dela gutxiago, Euskadin transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Legea (ekainaren 28ko 14/2012), adibide batzuk aipatzearren.

Ukaezina da, gainera, gizarteak aurrerapausoak eman dituela gai horrekiko kontzientziazioan, eta horren ondorioz, oro har, jarrera irekiagoz hartzen dela aniztasun sexuala.

Baina ez dezagun gure burua engaina: oraindik ere LGTBIfobia dago gure gertukoenen artean ere. Halaxe dela egiaztatzen dute Barne Ministerioak zein Eraberean euskal sareak 2015. urtean izandako gorroto-delituei buruz argitaratutako azken txostenek, biek nabarmentzen baitute gure autonomia-erkidegoan oraindik ere izaten direla zenbait egoera diskriminatzaile eta gorroto delitu LGTBIfobian oinarrituak (Eraberean Tratu berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea da).

Hala, gure inguruan oraindik ere agertzen dira zenbait seinale, horren erakusle: hetero- arautik kanpoko sexualitateak hierarkizatzen eta diskriminatzen dituen

## DÍA DEL ORGULLO LGTBI: DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El 17 de Mayo de 1990, la Asamblea de la Organización Mundial de la Salud (OMS) retiró la homosexualidad de la lista de enfermedades mentales.

Es evidente que hemos avanzado mucho en el ámbito legal, y resultado de esos avances fue la aprobación del matrimonio entre iguales en el años 2005 o más recientemente, la Ley que se aprobó en Euskadi contra la marginación de transexuales por su identidad de género y a favor de la protección y declaración de los derechos de éstos (Ley 14/2012 del 28 de Junio); por poner algún ejemplo.

Es incuestionable también, que la sociedad ha avanzado mucho en lo referido a la concienciación sobre este tema, y que por lo tanto se acepta y mira la diversidad sexual con una actitud más abierta.

Sin embargo no debemos engañarnos, aún existe la LGTBIfobia en nuestro entorno. Así lo acreditan los informes publicados por el Ministerio de Interior y Eraberean Euskalsarea sobre los delitos de odio sucedidos en 2015. Ambos coinciden en el hecho de que en nuestra Comunidad Autónoma se siguen dando ciertas situaciones de discriminación y odio relacionaros con la LGTBfobia. (Eraberean es una red contra la discriminación y a favor de la igualdad de trato)

En nuestro entorno se siguen viendo señales de esta discriminación: Prejuicios

aurreiritzi sexuala; transexualen kolektiboaren patologizazioa; jokabide homofoboak gure ikastetxeetan; eta emakume lesbianen ikusezintasuna, legitimitate sozialik gabe eta haien eskubideak askatasunez bizitzeko aukerarik gabe uzten dituena.

Horra, gugandik oso gertu, LGTBI kolektiboarengan eragina duten zenbait maila defizitario; egoera askoz ere dramatikoagoa delarik nazioarteko esparruaz ari bagara. Ezin dugu ahaztu, bestalde, badirela 70 herrialde baino gehiago non sexu bereko pertsonen arteko harreman sexualak zigortzen dituzten, eta 11 herrialdetan heriotza-zigorra ezarrita dutela arrazoi horrengatik.

Eragile sozial guztion eginbeharra da, beraz, bestelako gizartea sortzea, errespetutsuagoa, justuagoa eta integratzaileagoa. Horretarako, gure lan-agendetan konpromiso esplizitua hartu behar dugu LGTBI kolektiboarekiko, aurrera egin dezagun kolektibo horrek sufritzen dituen mota desberdinetako diskriminazioen aurka.

Horrela, Ekainaren 28an , LGTBI harrotasunaren egunean ostadar bandera jarriko da udaletxe honetan, eta dei egiten diegu gainontzeko erakundeei ostadar bandera harrotasunez erakustera, kolektiboaren berdintasunaren aldeko borrokarako ikurra den aldetik, gure gizarteak pertsona guztientzako giza eskubideak lortzeko bidean aurrera egin dezan lortzeko hainbat pertsonak, elkartek, GKEk eta botere publikoek batera egiten dugun ahaleginaren adierazgarri.

2017LGTBI HARROTASUN egun zoriontsua!

sexuales, prejuicios que jerarquizan y discriminan las sexualidades que se salen del hetero-reglamento; patologización del colectivo transexual; conductas homofobas en nuestros centros escolares; y la invisibilización de las mujeres lesbianas que las deja sin legitimidad social ni derecho a vivir sus derechos con libertar.

No son más que ejemplos de la desigualdad que sufre el colectivo LGTBI en nuestro entorno, y la situación es aún peor a nivel internacional. No podemos olvidar además, que hay más de 70 países en los que se castigan las relaciones entre personas del mismo sexo con penas de cárcel, y que hay al menos 11 países en los que se castigan con pena de muerte.

Es obligación de todos los agentes sociales trabajar por otra sociedad, más respetuosa, más justa e integradora. Para eso, nos comprometemos con el colectivo LGTBI en trabajar en contra de cualquier discriminación.

Así, el 28 de Junio, el día del orgullo LGTBI se colgará la bandera arcoíris y animamos al resto de particulares e instituciones a hacer lo mismo; en cuanto a que simboliza la lucha en el camino hacia el logro de los derechos humanos para todas las personas que conforman nuestra sociedad. Simboliza el esfuerzo que hacemos las distintas personas, sociedades, ONGs y poderes públicos con ese mismo fin.

¡Feliz ORGULLO LGTB2017!